Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

6611

EBAZPENA, 2009ko azaroaren 23koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Zerbitzu zuzendariarena, saileko kontratazio-mahaiaren lehendakariaren ordezkapenen araubidea ezartzen duena.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2009ko urriaren 23ko Aginduaren arabera Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Kontratazio-Mahaia sortu zen (azaroaren 17ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu da), eta 1.2 artikuluan ezartzen duenez, mahai horren lehendakari Garraio eta Herri Lanetako sailburuordea izango da.

Ordezkapenei dagokienez, mahaiaren lehendakaria kanpoan, lanpostua hutsik edo legezko beste arrazoiren bat izanez gero, Aginduaren 2. artikuluaren arabera, Zerbitzu zuzendariak izendatuko omen du ordezkoa. Ordezko hori izendatzeko, Aginduak berak hainbat irizpide ezartzen ditu, Zerbitzu Zuzendaritzako ekonomia eta aurrekontuen kudeaketaren edo lege-zerbitzuaren arloari atxikitako langileen artetik aukeratu beharko dela agintzen baitu.

Kontuan izanik ordea, saileko kontratazio-mahaiak garraio eta herri lanen arloko espedienteak eta etxebizitzaren arlokoak izaten dituela esku artean, arlo bakoitzeko ordezko bat izendatzea komeni da, aztergai diren gaien arabera, espezializazio eta egonkortasun maila egokiagoa lortu ahal izateko.

Azaldutako guztiagatik,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Kontratazio Mahaiaren lehendakari izatea dagokion kargua hutsik dagoenerako edo titularra kanpoan edo gaixorik dagoenerako ordezkapenak egiteko araubidea onartzea, jarraian zehazten den eran:

a) Garraio eta herri lanen arloko kontratazio-espedienteetan, Zerbitzu Zuzendaritzako administrazio eta finantzen arloko arduradunak ordezkatuko du.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

6611

RESOLUCIÓN de 23 de noviembre de 2009, de la Directora de Servicios del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, por la que se establece el régimen de suplencias de la persona titular de la presidencia de la Mesa de Contratación del Departamento.

La Orden de 23 de octubre de 2009, del Consejero de Economía y Hacienda y del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, de creación de la Mesa de Contratación del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco de 17 de noviembre, fija en su artículo 1, apartado 2, la composición de la referida Mesa, precisando como titular de su Presidencia al Viceconsejero o Viceconsejera de Transportes y Obras Públicas.

En cuanto a la sustitución, por ausencia, vacante u otra causa legal, del titular de la Presidencia de la Mesa, el artículo 2 de la Orden citada, prevé que correspondería a la Directora o Director de Servicios el nombramiento del suplente. Para tal elección, la propia Orden establece unos criterios, ya que el suplente deberá ser designado de entre el personal adscrito a la Dirección de Servicios en el área de gestión económico-presupuestaria o en el servicio jurídico.

Visto que en la Mesa de Contratación del Departamento confluyen expedientes de contratación relativos al área de transportes y obras públicas junto con expedientes referidos al área de vivienda, resulta adecuado designar suplentes diferentes por cada una de dichas áreas, logrando así una adecuada especialización y estabilidad en razón de las materias implicadas.

Por lo expuesto,

RESUELVO:

Primero.– Aprobar el régimen de suplencia en supuestos de vacante, ausencia o enfermedad de la persona titular de la Presidencia de la Mesa de Contratación del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, en los siguientes términos:

a) En los expedientes de contratación que afecten al área de transportes y obras públicas, la suplencia recaerá en la persona responsable del área administrativo-financiera de la Dirección de Servicios.

b) Etxebizitzaren arloko kontratazio-espedienteetan, Zerbitzu Zuzendaritzako lege-zerbitzuaren arduradunak ordezkatuko du.

Bigarrena.– Era subsidiarioan, aurreko idatzzatietan ezarritako ordezkoen lanpostuak bete gabe badaude edo kanpoan edota gaixorik badaude, saileko Zerbitzu Zuzendaritzako lege-zerbitzuari atxikitako langileren batek egingo du ordezkapena.

Hirugarrena.– Ebazpen honek onartzen den egunetik bertatik izango ditu ondorioak.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 23a.

Zerbitzu zuzendaria,
PALOMA USATORRE MINGO.

b) En los expedientes de contratación que conciernan al área de vivienda, la suplencia recaerá en la persona responsable de los servicios jurídicos de la Dirección de Servicios.

Segundo.– Con carácter subsidiario, en caso de vacante, ausencia o enfermedad de las personas suplentes establecidas en los apartados anteriores, la suplencia será llevada a cabo por personal adscrito al servicio jurídico de la Dirección de Servicios del Departamento.

Tercero.– La presente Resolución producirá efectos desde la fecha en que ha sido dictada.

Cuarto.– Ordenar la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de noviembre de 2009.

La Directora de Servicios,
PALOMA USATORRE MINGO.